

**8. eranskina: Euskara Zerbitzua**  
**Irabazi xederik ez duten entitateentzako**  
**dirulaguntzak - 2023**

Anexo 8: Servicio de Euskera  
Subvenciones a entidades sin ánimo de lucro - 2023

## AURKIBIDEA

I. Auzoetako plan integralak.....	4
1. Xedea. Lagunduko diren jarduerak	
2. Plan integralek bete beharreko baldintzak.....	4
3. Aurrekontua.....	5
4. Balorazio irizpideak.....	5
5. Gutxieneko puntuazioa eta gehieneko laguntza.....	8
6. Komunikazio betebeharrak.....	9
II. Jarduera zehatzak.....	9
7. Xedea. Lagunduko diren jarduerak	9
8. Aurrekontua.....	10
9. Balorazio irizpideak.....	10
10. Gutxieneko puntuazioa eta gehieneko laguntza.....	12
11. Baztertzeak.....	13
12. Betebehar komunikatiboak.....	13
III. Euskararen eguneko egitarauak.....	14
13. Xedea. Lagunduko diren jarduerak	14
14. Euskara Zerbitzuarekin elkarlana	14
15. Aurrekontua.....	14
16. Balorazio irizpideak.....	15
17. Gutxieneko puntuazioa eta gehieneko laguntza.....	16
18. Baztertzeak.....	16
IV- Xedapen komunak.....	16
19. Onuradunak.....	16
20. Eskakerak aurkeztea.....	16
21. Izapidetzea eta proposamena. . .	17
22. Ebazpena.....	17
23. Beste diru laguntzekin batera jasotzea.....	17
24. Diru laguntza ordaintzea.....	17
25. Diru laguntzaren xedea justifikatzea.....	18

## ÍNDICE

I.- Planes integrales de los barrios.....	4
1. Objeto. Actuaciones que se subvencionarán.....	4
2. Requisitos de los Planes.....	4
3. Presupuesto.....	5
4. Criterios de valoración.....	5
5. Mínima puntuación y máxima subvención.....	8
6. Requisitos comunicativos.....	9
II.- Actuaciones concretas.....	9
7. Objeto. Actuaciones que se subvencionarán.....	9
8. Presupuesto.....	10
9. Criterios de valoración.....	10
10. Mínima puntuación y máxima subvención.....	12
11. Exclusiones.....	13
12. Requisitos comunicativos.....	13
III. Programas del día del euskera.....	14
13. Objeto. Actuaciones que se subvencionarán.....	14
14. Cooperación con el Servicio de Euskera.....	14
15. Presupuesto.....	14
16. Criterios de valoración.....	15
17. Puntuación mínima y máxima subvención.....	16
18. Exclusiones.....	16
IV.- Disposiciones comunes.....	16
19. Entidades beneficiarias.....	16
20. Solicitudes.....	16
21. Instrucción y propuesta.....	17
22. Resolución.....	17
23. Concurrencia con otras subvenciones	17
24. Abono de la subvención.....	17
25. Justificación del objeto de la subvención.....	18

Donostiako Euskararen Plan Orokorra garatzeko edo osatzeko 2023. urtean egitasmoak eta jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko entitate pribatuek dirulaguntzak jasotzeko bete beharreko baldintzak arautzen dira oinarri hauetan.

Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2020ko urriaren 13an onetsi zen 2020-2024 epealdirako Donostian euskararen berreskurapen osoa lortzeko tresna gisa. Plana hamaika esparruren arabera osatua dago eta bertan zehazten dira bakoitzerako helburu operatibo eta programa edo egitasmoak.

Euskararen Plan Orokorraren misioa da Donostian euskara berreskuratzeko eta zabaltzeko bidean aurrera egitea, Udalak eskumena duen arloetan eta erakundeetan eraginez.

Donostiako gizarte-bizitza osatzen duten eragileekin lankidetzan, Udalak behar berrietara etengabe egokituz lan egingo du euskararen erabilera indartzeko, donostiar guztiei euskaraz bizitzeko baldintzak eskainiz, euskararekiko atxikimendua sustatuz eta euskaraz ez dakitenak euskara ikastera erakarritz.

Planaren hiru helburu estrategikoekin batera, badira kontuan izan behar diren zeharlerroak ere. Horien artean daude euskararen aldeko motibazioa eta zabalkundea.

Era berean, planean zehazten diren printzipio orokorren artean daude elkarlana eta gizarte aktibazioa. Euskararen biziberritzean aurrera egin nahi badugu, erakunde publikoek, gizarte eragileek eta herritarrek eskutik joatea ezinbestekoa da. Euskalgintzarekin batera gizarte aktibazioa lantzen jardun dugu eta horri jarraipen ematea plan honen oinarrian dago.

Hau guztia kontuan hartuta, Donostiako auzoek bidegile eta bidelagun izaten jarraituko dute Plan Orokorra aurrera eramateko garaian. Bakoitzak bere errealitatetik urratsak egin ditzan euskararen erabileran aurrera egiteko, Euskara Zerbitzuak modu koordinatuan lan egingo du.

Aipatzeko modukoa da, planean zehazten

Bases específicas por las que se regula la concesión de ayudas a entidades privadas sin ánimo de lucro para la realización de proyectos y actividades durante el año 2023, con el fin de desarrollar o complementar el Plan General del Euskera de San Sebastián.

El Plan General del Euskera de San Sebastián, para el período 2020-2024, se aprobó el 13 de octubre del 2020 como instrumento para la recuperación completa del euskera en San Sebastián. El Plan está articulado en once áreas y, en el mismo, se especifican los objetivos operativos y los programas o acciones.

La misión del Plan General del Euskera es avanzar en la recuperación y difusión del euskera en Donostia, incidiendo en los ámbitos y entidades que sean competencia del Ayuntamiento.

En colaboración con los agentes que conforman la vida social de nuestra ciudad, el Ayuntamiento trabajará adaptándose constantemente a las nuevas necesidades para potenciar el uso del euskera, ofreciendo a toda la ciudadanía donostiarra las condiciones para vivir en euskera, fomentando la adhesión al idioma y atrayendo a quienes no lo saben al aprendizaje.

Junto a los tres objetivos estratégicos del plan, adquieren gran importancia las líneas de trabajo transversales: la motivación y la difusión.

De la misma forma, entre los principios generales que se detallan en el plan, están la cooperación y la activación social. Si queremos avanzar en la regeneración del euskera, las instituciones públicas, los agentes sociales y la ciudadanía tenemos que ir de la mano. Hemos trabajado en la activación social junto a los agentes sociales del euskera y una de las bases de este plan es dar continuidad a este trabajo en común.

Teniendo en cuenta lo señalado, los barrios donostiarras seguirán siendo protagonistas y colaborado activamente a la hora de desarrollar el Plan de Euskera. Partiendo de la realidad de cada barrio, el Servicio de Euskera trabajará coordinándose con los barrios.

Entre los principios generales que se citan en

diren printzipio orokorren artean daudela gazteak giltzarri izatea eta kultur aniztasuna. Integrazio sozialak eta kulturalak eskutik joan behar dute eta hizkuntzak oinarrizko elementu dira bide horretan. Horretarako ezinbestekoa da elkarlana, bai migratutako pertsonen iritzia kontuan hartzeko, baita administrazioetan eta lankidetzarako proiektuak garatzen dituzten erakundeen artean koordinatzeko ere.

Horiek horrela, Donostiako Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, Donostiako Euskararen Plan Orokorra garatzeko edota osatzeko 2023. urtean antolatzen diren jarduera eta egitasmoak diruz lagunduko ditu. Aurrekontu osoa 60.260 eurotako izango da. Dirulaguntza honako hiru deialdi hauen bidez egingo da:

- Auzoetako plan integralak
- Jarduera zehatzak
- Euskararen eguneko egitarauak

## I. Auzoetako plan integralak

### 1. Xedea. Lagunduko diren jarduerak

Dirulaguntza hauen xedea, Euskararen Plan Orokorra (2020-2024) Donostiako auzoetan garatu ahal izateko egitasmo integralak dira.

Plan horietan euskararen gizarte erabilera sustatzeko, erabilera horren zabalkundea egiteko edo normalizatzeko ekintzak jasoko dira, baldin eta 4. puntu zehazten diren irizpideei jarraituz balioetsi daitezkeen jarduera esparru guztiei edo haietako batzuei badagozkie.

### 2. Plan integralek bete beharreko baldintzak

Dirulaguntzak jaso ahal izateko Planek honako eduki hauek jaso beharko dituzte:

Auzoaren azterketa eta diagnostikoa egitea batik bat ikuspuntu soziolinguistikotik baina baita hizkuntza politikan eragina izan dezaketen beste alderdi batzuetatik ere.

Euskararen Plan Orokorra marko gisa

el plan, están los de la importancia de la juventud y el de la diversidad cultural. La integración social y cultural debe ir de la mano y las lenguas son un elemento fundamental en este camino. Para ello es imprescindible la colaboración, tanto para tener en cuenta las opiniones de las personas migradas como para coordinarse entre las administraciones y entre las instituciones que desarrollan proyectos de cooperación.

En su virtud, el Ayuntamiento de San Sebastián, a través del Servicio de Euskera, subvencionará los programas y actuaciones organizados durante el año 2023 con el fin de desarrollar el Plan General del Euskera de San Sebastián. Para ello destinará en total un presupuesto de 60.260 euros. La subvención contará con estas tres convocatorias:

- Planes integrales de los barrios
- Actuaciones concretas
- Programas para el día del euskera

## I.- Planes integrales de los barrios

### 1. Objeto. Actuaciones que se subvencionarán

El objeto de estas subvenciones son los programas integrales de los barrios para desarrollar el Plan General de Euskera de San Sebastián (2020-2024).

Dichos Planes contemplarán diferentes acciones dirigidas a fomentar, difundir o normalizar el uso social del euskera, siempre y cuando recojan todos o algunos de los ámbitos de actuación susceptible de ser valorados conforme a los criterios del punto 4.

### 2. Requisitos de los Planes

Para ser objeto de subvención los Planes deberán recoger los siguientes contenidos:

Análisis y diagnóstico, sobre todo desde el punto de vista sociolingüístico, pero también desde otros campos que pueden incidir en la política lingüística.

Dentro del marco del Plan General, fijar los

hartuta, auzoan euskararen normalizazioak aurrera egiteko helburu zehatzak finkatzea.

Helburu horiek erdiesteko ekintza plana.

Ekintzen garapena

Jarraipena egiteko metodologia

### 3. Aurrekontua.

Donostiako auzoetako plan integraletarako diru kopurua 40.000 € izango da eta Euskara Zerbitzuaren 2023ko aurrekontuari egotziko zaio.

Lehenengo atal honi dagokion ebazpena egin ondorenean soberakina izango dela aurreikusten bada, II. atalari dagokion dirulaguntzetako kopurua handituko da.

### 4. Balorazio irizpideak

Dirulaguntzak emateko eta zenbatekoa finkatzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan.

1. Aurkezten den Proiektua Euskararen Plan Orokorreko helburuekin bat etortzea 0-44 puntu bitartean. Plan Orokorrearen helburu horiek oinarri hartuta, honela emango zaizkie puntuak proiektuei:

1.1. Euskararen Transmisioa: (0-6 puntu).

1.1.1. Irakaskuntza. (0-2 puntu).

Euskarazko matrikulazioa sustatzea Hezkuntza arautuan nahiz ez arautuan.

Haur eta gazteen artean euskararekiko sentsibilizazioa eta ahozko erabilera naturala sustatzea.

1.1.2. Euskalduntze-alfabetatzea (0-2 puntu).

Euskaltegietan matrikulazioa sustatzea eta xede talde berriak bilatzea.

Euskaltegiz kanpoko erabilera sustatzea, euskara ikasten ari diren

objetivos concretos para el avance de la normalización del euskera en el barrio.

Plan de acciones para lograr esos objetivos.

Desarrollo de las acciones

Metodología de seguimiento

### 3. Presupuesto.

La cantidad destinada a los planes integrales de los barrios de Donostia es de 40.000 € y el gasto se hará con cargo al presupuesto de 2023 del Servicio de Euskera.

En el caso de que, una vez elaborada la resolución de concesión de las subvenciones correspondientes al presente apartado I, se prevea la existencia de remanente, éste acrecerá el importe previsto para atender las subvenciones del apartado II.

### 4. Criterios de valoración

Para la concesión de la subvención y la determinación del importe se valorarán los siguientes aspectos:

1. La coincidencia del proyecto con los objetivos del Plan General entre 0-44 puntos. Tomando como base los objetivos del Plan General, la puntuación de los proyectos se hará de este modo:

1.1. La transmisión del euskera: (0-6 puntos).

1.1.1. Educación. (0-2 puntos).

Fomentar la matriculación en euskera, tanto en la educación reglada como en la no reglada.

Fomentar la sensibilización de los/las niños/as y jóvenes hacia el euskera e impulsar el uso oral natural de la lengua.

1.1.2. Euskaldunización-alfabetización (0-2 puntos).

Fomentar la matriculación en los euskaltegis y buscar nuevos grupos específicos de aprendizaje.

Fomentar la utilización del euskera fuera del euskaltegi, de modo que las

ikasleek, bere ikasketa prozesuarekin batera, euskara erabiltzeko esparruak izan ditzaten.

### 1.1.3. Familia (0-2 puntu).

Gurasoak seme-alabekiko hizkuntzaren transmisio naturalak eta kulturalak duen garrantziaz ohartarazi eta sentsibilizatzea.

## 1.2. Euskararen Erabilera: (0-20 puntu).

### 1.2.1. Lan mundua (0-10 puntu).

Zerbitzu enpresek, batik bat merkataritza eta ostalaritza esparrukoak, herritarrekin dituzten harremanetan euskara erabiltzeko aukera osotasunean eman dadin bultzatzea.

### 1.2.2. Aisia eta Kirola (0-10 puntu).

#### Aisia

Aisialdiaren eremuan, herritarrek eta, batez ere, gazteek duten euskarazko eskaintza eta erabilera areagotzea.

#### Kirola

Kirol jardueretan euskararen erabilera sustatzea.

## 1.3. Euskararen Elikadura: (0-8 puntu).

### 1.3.1. Kulturgintza: (0-2 puntu).

Hiriko kultur eskaintza eta produktuen kontsumoa bultzatzea eta horretarako informazioa zabaltzea.

### 1.3.2. Komunikabideak (0-3 puntu).

Euskarazko tokiko komunikabideak sortu eta bultzatzea eta hauen sustapena egitea.

Herritarrak eta, batik bat, gazteak komunikabide espezializatuaren arlora euskaraz hurbiltzeko aukerak eskaintzea.

personas que estén aprendiendo euskera, puedan contar con ámbitos de utilización del euskera.

### 1.1.3. Familia (0-2puntos).

Sensibilizar e insistir en la importancia de la familia en la transmisión natural y cultural del euskera.

## 1.2. Utilización del euskera. (0-20 puntos).

### 1.2.1. Ámbito laboral (0-10 puntos).

Fomentar que las empresas privadas garanticen la posibilidad de utilizar el euskera en sus relaciones con la población, tanto a nivel oral como escrito.

### 1.2.2. El ocio y el deporte (0-10 puntos).

#### Ocio

Aumentar la oferta y uso del euskera en el ámbito del ocio y tiempo libre de la población, y especialmente de la juventud.

#### Deporte

Promocionar la utilización del euskera en las actividades deportivas.

## 1.3. Calidad del euskera: (0-8 puntos).

### 1.3.1. Cultura (0-2 puntos).

Promocionar la oferta y el consumo del producto cultural de la ciudad, divulgándola.

### 1.3.2. Medios de comunicación. (0-3 puntos).

Crear e impulsar medios de comunicación locales en euskera y hacer promoción de los mismos.

Ofrecer a la ciudadanía, y en particular, a la juvenil, la posibilidad de acercarse a los medios de comunicación especializados en euskera.

<p>1.3.3. Hizkuntza baliabideak eta corpora (0-3 puntu).</p> <p>IKT berrietan (ordenagailu, sakelako telefono...) herritarren aldetik euskararen erabilera sustatzea.</p> <p>Hiriaren berezko hizkuntza ondarea berreskuratu, landu eta gizarteratzea (dialektologia, toponimia...), eta, batik bat, erabilera komunikatiboa izan dezan sustatzea.</p>	<p>1.3.3. Recursos lingüísticos y corpus (0-3 puntos).</p> <p>Fomentar la utilización del euskera en las nuevas TIC (ordenadores, teléfonos móviles...) por parte de la ciudadanía.</p> <p>Recuperar, elaborar y difundir el patrimonio lingüístico propio de la ciudad (dialectología, toponimia...), y elaborarlo en diversos canales y registros, con objeto de que alcance una utilización comunicativa.</p>
<p>1.4. Euskararen Motibazioa eta sustapena (0-10 puntu).</p> <p>Donostiarrak euskararen alde sentibilizatzea, euskarak egungo gizartean dituen balioak nabarmenduz.</p>	<p>1.4. Motivación y promoción del euskera (0-10 puntos).</p> <p>Sensibilizar a la población de Donostia a favor del euskera, insistiendo en el valor del euskera en la sociedad actual.</p>
<p>2. Euskararen egunaren harira antolatutako jarduerak. Baloratuko da zenbat eragilerekin izango den harremana, proposatutako ekintzen kalitatea, euskararen normalizazioa auzoan lortzeari begira, ekintzen eragina auzoan, hau da, izango duen ikusgarritasuna eta zenbat jenderengan izango duen eragina. (0-15 puntu).</p>	<p>2. Actuaciones organizadas en torno al día del euskera. Se valorará con cuántos agentes se relacionarán, la calidad de las acciones a realizar con el objetivo de normalizar la situación del euskera en el barrio, el efecto de las acciones, es decir, la visibilidad que tendrá y a cuánta gente afectará. (0-15 puntos)</p>
<p>3. Alderdi soziokomunitarioa eta soziodemografikoa (0-23 puntu).</p>	<p>3. Aspectos sociocomunitarios y sociodemográficos (0-23 puntos).</p>
<p>3.1. Gazteei zuzendutako proiektuak (0-9 puntu).</p> <p>Proiektua, bereziki, 12-25 urte bitarteko gazteei zuzenduta dagoen, edo beraientzat interesgarria izan daitekeen hartuko da kontuan.</p>	<p>3.1. Proyectos dirigidos a la juventud (0-9 puntos).</p> <p>Se tomará en cuenta si el proyecto está dirigido o es interesante para las personas jóvenes comprendidas entre los 12-25 años.</p>
<p>3.2. Proiektuan zehar genero ikuspegia txertatua izatea eta emakumeen ahaldunderako ekintzak aurreikusitak izatea (0-5 puntu).</p> <p>Auzoaren egoera kontuan hartu behar da: ezagutza maila, antolaketa maila, entitate sendoturik ba ote dagoen.</p>	<p>3.2. Tener integrada la perspectiva de género en el proyecto y tener previstas acciones para el empoderamiento de las mujeres (0-5 puntos).</p> <p>Se tomará en cuenta la situación del barrio: nivel de conocimiento de organización, si hay alguna entidad afianzada etc.</p>
<p>3.3 Etorri berrientzako proiektuak (0-9 puntu)</p> <p>Aipatutako arlo guztietan etorri berriei berariaz zuzendutako ekintzarik dagoen baloratuko da.</p>	<p>3.3 Proyectos para nuevos migrantes (0-9 puntos)</p> <p>Se valorará si en las áreas citadas hay proyectos específicos para nuevos migrantes.</p>

4. Proiektuaren kalitatea eta koherentzia. (0-10 puntu).

Jarduera edo programaren kalitatea (izaera berritzailea, diseinua, metodologia, baliabideen antolaketa). Bereziki baloratuko da egitasmoak duen koherentzia, hau da, aurreikusitako ekintzek helburu zehatzak lortzeko duten eraginkortasuna eta diagnostikoarekiko azaltzen duten lotura. Entitateak erabiltzen dituen finantza baliabideak eta eskatutakoaren eta beste baliabide batzuen arteko proportzioa, betiere puntu gehiena emanez autofinantzaketara gehien hurbiltzen denari.

5. Proiektuaren jarraikortasuna (0-2 puntu).

Proiektuaren ibilbidea, jarraikortasuna eta egonkortasuna.

6. Programak gizartean duen eragina, hartzaile kopurua (0-2 puntu).

7. Osaketa, elkarlana eta koordinazioa (0-4 puntu).

Baloratuko da plangintza aurrera daraman taldearen osaera: eragile kopurua, aniztasuna eta gizarte esparru desberdinetako ordezkariak taldean parte hartzea. Beste erakunde, entitate, herritar eta gainerako gizarte eragileekiko elkarlana eta koordinazioa ere baloratuko da.

**5. Gutxieneko puntuazioa eta gehieneko laguntza**

1.- Egitasmoak, gutxienez, 50 puntu jaso beharko ditu diruz lagundu ahal izateko.

2.- Egitasmoak jasotako puntuazioaren arabera, gehienez ere ehuneko jakin batean diruz lagunduko dira, ondoren adierazitako moduan:

50-60 puntu: gehienez, aurreikusitako aurrekontu defizitaren %50.

61-79 puntu: gehienez, aurreikusitako aurrekontu defizitaren %75.

80-100 puntu: gehienez, aurreikusitako aurrekontu defizitaren % 100.

3.- Oinarrietako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei dirulaguntza emateko

4. Calidad y coherencia del proyecto (0-10 puntos).

Calidad de la actuación o del programa (carácter renovador, diseño, metodología, organización de medios). Se valorará especialmente la coherencia del programa, es decir, la eficacia que tienen las acciones previstas para conseguir los objetivos concretos y la relación que tienen con el diagnóstico. Los recursos financieros de la organización y proporción de la ayuda solicitada respecto a los recursos propios. Quien se acerque más a la autofinanciación obtendrá mas puntos.

5. Continuación del proyecto (0-2 puntos).

El recorrido continuación y estabilidad del proyecto.

6. Influencia del programa en la sociedad (ámbito de influencia). (0 - 2 puntos)

7. Composición, colaboración y coordinación (0-4 puntos).

Se valorará la composición de la comisión que lleva a cabo la planificación: número de agentes sociales, diversidad y la participación de representantes de diferentes sectores. También se valorará la coordinación y el nivel de implicación de otras organizaciones, entidades, ciudadanía y el resto de agentes sociales

**5. Mínima puntuación y máxima subvención**

1.- Para conceder la subvención, el proyecto deberá de obtener como mínimo 50 puntos.

2.- Los proyectos serán subvencionados en un porcentaje máximo en función de la puntuación obtenida, en los términos que se indican a continuación:

50-60 puntos: como máximo el 50% del déficit presupuestario previsto.

61-79 puntos: como máximo el 75% del déficit presupuestario previsto.

80-100 puntos: como máximo el 100% del déficit presupuestario previsto.

3.- En caso de que no hubiera suficiente crédito presupuestario para atender a todas

nahikoa aurrekontu krediturik ez balego, 2. puntuan aipatutako irizpideak kontuan hartuta, dirulaguntza kopurua modu honetara esleitu litzateke:

a) Lehenengo fasean, eskaera bakoitzari gehienez 1.800 euro esleitu zaizkio. Kopuru zehatza 2. puntuko irizpideen arabera emaitza izango da.

b) Bigarren fasean, gainerako kreditua hainbanaketa eginda banatuko da eskaera guztien artean, 2. artikuluan aipatutako irizpideak kontuan hartuta.

## 6. Komunikazio betebeharrak

1. Diruz lagundutako jarduerak egin baino lehen, data zehatzak komunikatu beharko zaizkio euskara zerbitzuari, agendan sar ditzan eta hedapenean lagun dezan.

2. Oinarri orokorretako 26. artikulua betez, onuradunek egoki iragarri beharko dute diruz lagundutako programek, ekintzek, inbertsioek edo dena delako jarduerak finantzaketa publikoa izan dutela, adibidez Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren logotipo eguneratua jarrita kartel, web eta abarretan..

## II. Jarduera zehatzak

### 7. Xedea. Lagunduko diren jarduerak

Dirulaguntza hauen xede diren jarduerak berariaz euskararen erabilera soziala sustatu, hedatu edo normalizatzen zuzendutako ekintza edo jarduerak izango dira, betiere, oinarri berezi hauen 9. puntuan zehazten diren irizpideak jarraituz balioetsi daitezkeen jarduera esparruren bati badagozkio.

Aurkezten diren proiektu edo ekintzen eragin eremuak ez du Donostiako udalerrira gaindituko. Aurkezten den proiekturen batek eragin eremu hau gaindituko balu, eskabidean aurkezten den proposamenean zehaztu beharko litzateke zehazki, eta aurrekontuan kuantifikatuta azaldu, zer

las solicitudes conforme a los criterios establecidos en el apartado anterior, el importe de la subvención a conceder se determinará según el siguiente procedimiento:

a) En una primera fase se asignará a cada solicitud un importe máximo de 1.800 euros. La cuantía exacta será la resultante de aplicar los criterios del apartado 2 de este artículo.

b) En una segunda fase, mediante prorrateo se repartirá el resto del crédito entre todas las solicitudes atendiendo igualmente a los criterios del apartado 2 de este artículo.

## 6. Requisitos comunicativos

1. Antes de realizar las actuaciones objeto de subvención, deberán comunicarse al servicio de euskera las fechas concretas, al objeto de ponerlas en la agenda y ayudar en su difusión.

2. En cumplimiento del art 26 de las bases generales, los beneficiarios deberán dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de programas, actividades, inversiones o actuaciones de cualquier tipo que sean objeto de subvención, por ejemplo, colocando el logotipo actualizado del Servicio de euskera del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián en los carteles, webs etc.

## II.- Actuaciones concretas

### 7. Objeto. Actuaciones que se subvencionarán

El objeto de estas subvenciones es impulsar las actuaciones, dirigidos a fomentar, difundir o normalizar el uso social del euskera, siempre y cuando se enmarquen en algún ámbito de actuación susceptible de ser valorado conforme a los criterios del punto 9 de estas bases específicas.

El área de influencia de las actuaciones presentadas no sobrepasará el municipio de Donostia. Si algún proyecto lo sobrepasara, tendrá que especificar concretamente, y cuantificarlo en el presupuesto, qué es lo que atañe a Donostia o a los/as donostiarras.

dagokion Donostiari edo donostiarrei.

## 8. Aurrekontua

Jarduera zehatzetarako diru kopurua 12.000 € izango da eta Euskara Zerbitzuaren 2023ko aurrekontuari egotziko zaio.

Bigarren atal honi dagokion ebazpena egin ondorenean soberakina izango dela aurreikusten bada, lehenengo atalari dagokion dirulaguntzetako kopurua handituko da.

## 9. Balorazio irizpideak

Dirulaguntzak emateko eta zenbatekoa finkatzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Aurkezten den Proiektua Euskararen Plan Orokorreko helburuekin bat etortzea 0-45 puntu bitartean. Plan Orokorrearen helburu horiek oinarri hartuta, honela emango zaizkie puntuak proiektuei:

1.1. Euskararen Transmisioa: (0-9 puntu).

1.1.1. Irakaskuntza. (0-3 puntu).

Euskarazko matrikulazioa sustatzea  
Hezkuntza arautuan nahiz ez arautuan.

Haur eta gazteen artean euskararekiko sentsibilizazioa eta ahozko erabilera naturala sustatzea.

1.1.2. Euskalduntze-alfabetatzea (0-3 puntu).

Euskaltegietan matrikulazioa sustatzea eta xede talde berriak bilatzea.

Euskaltegiz kanpoko erabilera sustatzea, euskara ikasten ari diren ikasleek, bere ikasketa prozesuarekin batera, euskara erabiltzeko esparruak izan ditzaten.

1.1.3. Familia (0-3 puntu).

Gurasoak seme-alabekiko hizkuntzaren

## 8. Presupuesto

La cantidad destinada a las actuaciones concretas es de 12.000 € y el gasto se hará con cargo al presupuesto de 2023 del Servicio de Euskera.

En el caso de que, una vez elaborada la resolución de concesión de las subvenciones correspondientes al presente apartado II, se prevea la existencia de remanente, éste acrecerá el importe previsto para atender las subvenciones del apartado I.

## 9. Criterios de valoración

Para la concesión de la subvención y la determinación del importe se valorarán los siguientes aspectos:

1. La coincidencia del proyecto con los objetivos del Plan General entre 0-45 puntos. Tomando como base los objetivos del Plan General, la puntuación de los proyectos se hará de este modo:

1.1. La transmisión del euskera: (0-9 puntos).

1.1.1. Educación. (0-3 puntos).

Fomentar la matriculación en euskera, tanto en la educación reglada como en la no reglada.

Fomentar la sensibilización de los/las niños/as y jóvenes hacia el euskera e impulsar el uso oral natural de la lengua.

1.1.2. Euskaldunización-alfabetización (0-3 puntos).

Fomentar la matriculación en los euskaltegis y buscar nuevos grupos específicos de aprendizaje.

Fomentar la utilización del euskera fuera del euskaltegi, de modo que las personas que estén aprendiendo euskera, puedan contar con ámbitos de utilización del euskera.

1.1.3. Familia (0-3 puntos).

Sensibilizar e insistir en la importancia

transmisio naturalak eta kulturalak duen garrantziaz ohartarazi eta sentsibilizatzea.	de la familia en la transmisión natural y cultural del euskera.
1.2. Euskararen Erabilera: (0-20 puntu).	1.2. Utilización del euskera. (0-20 puntos).
1.2.1. Lan mundua (0-10 puntu).	1.2.1. Ámbito laboral (0-10 puntos).
Zerbitzu enpresek, batik bat merkataritza eta ostalaritza esparrukoak, herritarrekin dituzten harremanetan euskara erabiltzeko aukera osotasunean eman dadin bultzatzea.	Fomentar que las empresas privadas garanticen la posibilidad de utilizar el euskera en sus relaciones con la población, tanto a nivel oral como escrito.
1.2.2. Aisia eta Kirola (0-10 puntu).	1.2.2. El ocio y el deporte (0-10 puntos).
Aisia	Ocio
Aisialdiaren eremuan, herritarrek eta batez ere gazteek duten euskarazko eskaintza eta erabilera areagotzea.	Aumentar la oferta y uso del euskera en el ámbito del ocio y tiempo libre de la población, y especialmente de la juventud.
Kirola	Deporte
Kirol jardueretan euskararen erabilera sustatzea.	Promocionar la utilización del euskera en las actividades deportivas.
1.3. Euskararen Elikadura: (0-8 puntu).	1.3. Calidad del euskera: (0-8 puntos).
1.3.1. Kulturgintza: (0-2 puntu).	1.3.1. Cultura (0-2 puntos).
Hiriko kultur eskaintza eta produktuen kontsumoa bultzatzea eta horretarako informazioa zabaltzea.	Promocionar la oferta y el consumo del producto cultural de la ciudad, divulgándola.
1.3.2. Komunikabideak (0-4 puntu).	1.3.2. Medios de comunicación. (0-4 puntos).
Euskarazko tokiko komunikabideak sortu eta bultzatzea eta hauen sustapena egitea.	Crear e impulsar medios de comunicación locales en euskera y hacer promoción de los mismos.
Herritarrak eta, batik bat, gazteak komunikabide espezializatuaren arloa euskaraz hurbiltzeko aukerak eskaintzea.	Ofrecer a la ciudadanía, y en particular, a la juvenil, la posibilidad de acercarse a los medios de comunicación especializados en euskera.
1.3.3. Hizkuntza baliabideak eta corpusa (0-2 puntu).	1.3.3. Recursos lingüísticos y corpus (0-2 puntos).
IKT berrietan (ordenagailu, sakelako telefono...) herritarren aldetik euskararen erabilera sustatzea.	Fomentar la utilización del euskera en las nuevas TIC (ordenadores, teléfonos móviles...) por parte de la ciudadanía.
Hiriaren berezko hizkuntza ondarea berreskuratzea, landu eta gizarteratzea	Recuperar, elaborar y difundir el patrimonio lingüístico propio de la

(dialektologia, toponimia...), eta, batik bat, erabilera komunikatiboa izan dezan sustatzea.

ciudad (dialektología, toponimia...), y elaborarlo en diversos canales y registros, con objeto de que alcance una utilización comunicativa.

1.4. Euskararen Motibazioa eta sustapena (0-8 puntu).

1.4. Motivación y promoción del euskera (0-8 puntos).

Donostiarrak euskararen alde sentibilizatzea, euskarak egungo gizartean dituen balioak nabarmenduz.

Sensibilizar a la población de Donostia a favor del euskera, insistiendo en el valor del euskera en la sociedad actual.

2. Alderdi soziokomunitarioa eta soziodemografikoa (0-25 puntu).

2. Aspectos sociocomunitarios y sociodemográficos (0-25 puntos).

2.1. Gazteei zuzendutako proiektuak (0-10 puntu).

2.1. Proyectos dirigidos a la juventud (0-10 puntos).

Proiektua, bereziki, 12-25 urte bitarteko gazteei zuzenduta dagoen, edo beraientzat interesgarria izan daitekeen hartuko da kontuan.

Se tomará en cuenta si el proyecto está dirigido o es interesante para las personas jóvenes comprendidas entre los 12-25 años.

2.2. Proiektuan zehar genero ikuspegia txertatua izatea (0-5 puntu)

2.2. Tener integrada la perspectiva de género en el proyecto (0-5 puntos).

Emakumeak ahalduntzeko ekintzak aurreikusitak izatea

Tener previstas acciones para el empoderamiento de las mujeres

2.3 Etorri berrientzako proiektuak (0-10 puntu)

2.3 Proyectos para nuevos migrantes (0-10 puntos)

Aipatutako arlo guztietan etorri berriei berariaz zuzendutako ekintzarik dagoen baloratuko da.

Se valorará si en las áreas citadas hay proyectos específicos para nuevos migrantes.

3. Programak gizartean duen eragina, hartzaile kopurua (0-5 puntu).

3. Influencia del programa en la sociedad (ámbito de influencia). (0-5 puntos).

4. Elkarlana eta koordinazioa (0-5 puntu).

4. Colaboración y coordinación (0- 5 puntos).

Beste erakunde, entitate, herritar eta gainerako gizarte eragileekiko elkarlana eta koordinazioa.

El nivel de implicación de otras organizaciones, entidades, ciudadanía y el resto de agentes sociales.

5. Proiektuaren kalitatea (0-20 puntu).

5. Calidad del proyecto (0-20 puntos).

Jarduera edo programaren kalitatea (izaera berritzailea, diseinua, metodologia, baliabideen antolaketa). Baloratuko da finantzatzeko eskatutako diru kopurua eta aurrera eraman beharreko jardueraren arteko oreka egokia.

Calidad de la actuación o del programa (carácter innovador, diseño, metodología, organización de medios). Se valorará el adecuado equilibrio entre la cantidad solicitada para financiar y el tipo de actuación a desarrollar.

**10. Gutxieneko puntuazioa eta gehieneko laguntza**

**10. Mínima puntuación y máxima subvención**

Egitasmoak, gutxienez 40 puntu jaso

Para conceder la subvención, el proyecto

beharko ditu diruz lagundu ahal izateko eta, jasotako puntuazioaren arabera, gehienez ere ehuneko jakin batean diruz lagunduko dira, ondoren adierazitako moduan:

40-50 puntu: gehienez, aurreikusitako aurrekontu defizitaren %40.

51-65 puntu: gehienez, aurreikusitako aurrekontu defizitaren %60.

66-80 puntu: gehienez, aurreikusitako aurrekontu defizitaren %80.

81-100 puntu: gehienez, aurreikusitako aurrekontu defizitaren %100.

Egindako banaketaren arabera, elkarteren bati 100 euro baino gutxiago badagozkio, ez da diruz lagunduko.

Oinarrietako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei dirulaguntza emateko nahikoa aurrekontu krediturik ez balego, hainbanaketa bidez esleituko litzateke dirulaguntza.

Elkarteen dirulaguntza eskaeran, gehienez ere 4.500 euroko muga hartuko da kontuan.

## 11. Baztertzeak

1. Deialdi honetan ez dira diruz lagunduko euskararen erabilera sustatzea berariazko helburutzat ez duten jarduerak. Halakotzat jotzen dira, esaterako, web orrien, liburuen edo argitalpenen itzulpenak, besteak beste.

2. Deialdi honetan ez dira diruz lagunduko publiko orokorrari zuzenduta ez dauden egitasmoak. Halakotzat jotzen dira, esaterako, elkarte batek bere bazkideentzat bakarrik egindakoak; guraso elkarte batek ikastetxe barruan bertako ikasleentzat antolatutako ekitaldiak...

3. Deialdi honetan ez dira diruz lagunduko euskara ikastaroak.

## 12. Betebehar komunikatiboak

1. Diruz lagundutako jarduerak egin baino lehen komunikatu beharko zaizkio euskara zerbitzuari, agendan sar ditzan eta hedapenean lagun dezan.

presentado por la entidad deberá de obtener como mínimo 40 puntos. Los proyectos serán subvencionados en un porcentaje máximo en función de la puntuación obtenida, en los términos que se indican a continuación:

40-50 puntos: como máximo el 40% del déficit presupuestario previsto.

51-65 puntos: como máximo el 60% del déficit presupuestario previsto.

66-80 puntos: como máximo el 80% del déficit presupuestario previsto.

81-100 puntos: como máximo el 100% del déficit presupuestario previsto.

Tras el reparto realizado, si se estiman menos de 100 €, no se le concederá ninguna subvención.

En caso de que no hubiera suficiente crédito presupuestario para atender a todas las solicitudes que cumplan los requisitos de estas bases, las subvenciones se concederían aplicando el prorrateo.

En la solicitud de subvención, como máximo se tomarán en cuenta 4.500 euros.

## 11. Exclusiones

1. Las actividades que no tengan como objetivo específico la normalización del uso del euskera. Como tales se consideran, por ejemplo, traducciones de páginas web, traducción y publicación de libros, etc.

2. En esta convocatoria no se concederán subvenciones a actividades que no estén dirigidas al público en general. Como tal se consideran, por ejemplo, las realizadas de una asociación que solamente van dirigidas a sus miembros; las organizadas por una asociación de madres y padres dentro de un colegio dirigidas al alumnado del mismo...

3. En esta convocatoria no se subvencionarán las clases de euskera.

## 12. Requisitos comunicativos

1. Antes de realizar las actuaciones objeto de subvención, deberán comunicarse al servicio de euskera las fechas concretas, con la finalidad de ponerlas en la agenda y ayudar

2. Oinarri orokorretako 26. artikulua betez, onuradunek egoki iragarri beharko dute diruz lagundutako programek, ekintzek, inbertsioek edo dena delako jarduerak finantzaketa publikoa izan dutela, adibidez Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren logotipo eguneratua jarrita kartel, web eta abarretan.

### III. Euskararen eguneko egitarauak

#### 13. Xedea. Lagunduko diren jarduerak

Dirulaguntza hauen xedea, Euskararen eguna auzoetan ospatzeko jardueren programazioa eta garapena da, zehazki, azaroaren 17tik abenduaren 3ra egingo direnak.

Entitate onuradunak auzo osoari begirako egitaraua prestatu beharko du. Aurkeztutako proiektua bideragarria dela ontzat eman beharko du Euskara Zerbitzuak.

Entitate eskatzailearen ardura izango da dagokion auzoan euskararen eguneko egitaraua atontzea. Horretarako, eskatzailea harremanetan jarriko da auzoko beste eragile batzuekin ere.

I. atalean dirulaguntza eskatu duten entitateek ezingo dute dirulaguntzarik eskatu III. atal honetan.

#### 14. Euskara Zerbitzuarekin elkarlana

Eskaerarekin batera aurkeztutako egitarauaren garapena, hau da, egunak, orduak, lekuak eta abar, hala zehaztutako epean (urriaren bukaeran), Euskara Zerbitzura bidali beharko da, auzo auzoko programazioan txertatzeko. Oro har, elkarlanean eta modu koordinatuan arituko dira Euskara zerbitzua eta dagokion auzoko entitate eskatzailea.

#### 15. Aurrekontua

Donostiako auzoetan euskararen eguneko jarduerak antolatzeko diru kopurua 8.260 € izango da eta Euskara Zerbitzuaren 2023ko

en su difusión.

2. En cumplimiento del art 26 de las bases generales, los beneficiarios deberán dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de programas, actividades, inversiones o actuaciones de cualquier tipo que sean objeto de subvención, por ejemplo, colocando el logotipo actualizado del Servicio de euskera del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián en los carteles, webs etc.

### III. Programas del día del euskera

#### 13. Objeto. Actuaciones que se subvencionarán

El objeto es subvencionar la programación y desarrollo de actos para celebrar el día del euskera en los barrios, concretamente, desde el 17 de noviembre hasta el 3 de diciembre.

La entidad solicitante presentará un programa dirigido a todo el barrio. El Servicio de Euskera resolverá si el proyecto presentado es viable.

Será responsabilidad de la entidad solicitante organizar el programa del día del euskera en el barrio. Para ello, el solicitante se pondrá en contacto también con otros agentes del barrio.

Las entidades que solicitan subvención para el apartado I, no podrán solicitarlo para este III apartado.

#### 14. Cooperación con el Servicio de Euskera

El desarrollo del programa presentado en la solicitud, es decir, los días, las horas, los lugares etc, detallado, en el plazo así determinado (a finales de octubre), se enviará al Servicio de Euskera para que pueda ser incluido dentro de la programación de todos los barrios. En general, cooperarán y se coordinarán la entidad solicitante y el Servicio de Euskera.

#### 15. Presupuesto.

La cantidad destinada a organizar el programa del día del euskera es de 8.260 € y el gasto se hará con cargo al presupuesto de

aurrekontuari egotziko zaio.

Auzo bakoitzak aurkeztutako aurrekontutik gehienez ere 1.600 euro izango dira diruz lagungarriak.

Atal honi dagokion ebazpena egin ondorenean soberakina izango dela aurreikusten bada, I. atalari dagokion dirulaguntzetako kopurua handituko da.

## 16. Balorazio irizpideak

Dirulaguntzak emateko eta zenbatekoa finkatzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan.

1. Proiektuaren kalitatea eta koherentzia. (0-15 puntu).

Jardueren kalitatea (izaera berritzailea, diseinua, metodologia, baliabideen antolaketa). Bereziki baloratuko da ekintzek euskararen normalizazioan izan dezaketen eragina.

2. Proiektuaren jarraikortasuna (0-10 puntu).

Euskararen eguna ospatzeak auzoan daukan tradizioa, ibilbidea, jarraikortasuna eta egonkortasuna proiektuan nola islatzen diren baloratuko da.

3. Antolatutako jarduerak auzoan duten eragina, hartzaile kopurua (0-25 puntu).

Zenbat jenderi dagoen zuzenduta jarduera. Haurrak solik diren protagonista, gazteentzako eta helduentzako ekintzak badauden, eta interes eta arlo desberdinetako jendeari zuzenduta dauden baloratuko da.

4. Osaketa, elkarlana eta koordinazioa (0-35 puntu).

Baloratuko da euskararen eguna aurrera eramateko taldearen osaera: eragile kopurua, aniztasuna eta gizarte esparru desberdinetako ordezkariak taldean parte hartzea. Beste erakunde, entitate, herritar eta gainerako gizarte eragileekiko elkarlana eta koordinazioa ere baloratuko da.

2023 del Servicio de Euskera.

Del presupuesto de la solicitud de cada barrio se considerarán como subvencionables un máximo de 1.600 euros.

En el caso de que, una vez elaborada la resolución de concesión de las subvenciones correspondientes al presente apartado III, se prevea la existencia de remanente, éste acrecerá el importe previsto para atender las subvenciones del apartado I.

## 16. Criterios de valoración

Para la concesión de la subvención y la determinación del importe se valorarán los siguientes aspectos:

1. La calidad y la coherencia el proyecto. (0-15 puntos)

La calidad de las actuaciones (carácter innovador, diseño, metodología, organización de los recursos). Se valorará especialmente la influencia que puedan tener las acciones en la normalización del euskera.

2. Continuidad del proyecto (0-10 puntos)

Se valorará cómo se refleja en el proyecto la tradición, recorrido, continuidad y estabilidad que tiene celebrar el día del euskera en el barrio.

3. El efecto que tienen las actuaciones en el barrio, el número de destinatarios (0-25 puntos).

Número de destinatarios. Se valorará si el protagonismo es sólo para la infancia, si hay actuaciones para la juventud y personas adultas; si están dirigidas a personas con intereses y sectores diferentes.

4. Formación, cooperación y coordinación (0-35 puntos).

Se valorará la formación de la comisión del día del euskera: número de agentes, y diversidad y la participación de representantes de diferentes sectores. También se valorará la cooperación y coordinación con otras instituciones, entidades, demás agentes sociales y ciudadanía en general

5. Proiektuan zehar genero ikuspegia txertatua izatea (0-5 puntu).

Emakumeak ahalduzko ekintzak aurreikusitako izatea.

6. Finantzaketa (0-10 puntu).

Entitate eskatzailearen finantza baliabideak eta eskatutakoaren eta beste baliabide batzuen arteko proportzioa, betiere puntu gehiena emanaz autofinantzaketara gehien hurbiltzen denari.

### **17. Gutxieneko puntuazioa eta gehieneko laguntza**

1.- Egitasmoak, gutxienez, 30 puntu jaso beharko ditu diruz lagundu ahal izateko.

2.- Egitasmoak jasotako puntuazioaren arabera, gehienez ere ehuneko jakin batean diruz lagunduko dira, ondoren adierazitako moduan:

30-59 puntu: gehienez, aurreikusitako aurrekontu defizitaren %60.

60-100 puntu: aurreikusitako aurrekontu defizitaren %100.

### **18. Baztertzak**

Ez dira diruz lagunduko elkartearen beraren bazkide edo partaideentzat soilik antolatutako euskararen eguneko egitasmoak.

Auzo batetik eskaera bat baino gehiago egongo balira, puntu gehien lortzen dituen soilik onartuko da. Kasu horretan, eskatzaileen arteko koordinazioa bultzatuko du Euskara Zerbitzuak.

## **IV- Xedapen komunak**

### **19. Onuradunak**

Oinarri orokorretako 3. artikuluan adierazitakoek eska ditzakete.

### **20. Eskaerak aurkeztea**

Dirulaguntza hauek jaso nahi dituztenek deialdi honetako oinarri orokorretan 4.

5. Tener integrada la perspectiva de género en el proyecto (0-5 puntos).

Tener previstas acciones para el empoderamiento de las mujeres.

6. Financiación (0-10 puntos).

Los recursos financieros de la organización y proporción de la ayuda solicitada respecto a los recursos propios. Quien se acerque más a la autofinanciación obtendrá más puntos.

### **17. Puntuación mínima y máxima subvención.**

1.- Para conceder la subvención, el proyecto presentado por la entidad deberá de obtener como mínimo 30 puntos.

2.- Los proyectos serán subvencionados en un porcentaje máximo en función de la puntuación obtenida, en los términos que se indican a continuación:

1. 30-59 puntos: como máximo máximo el 60% del déficit presupuestario previsto.

2. 60-100 puntos: el 100% del déficit presupuestario previsto.

### **18. Exclusiones.**

No se subvencionarán los programas del día del euskera dirigidos únicamente a los socios o participantes de la propia entidad solicitante.

En caso de que hubiesen más de una solicitud por barrio, se aceptará únicamente la que más puntos obtenga. En ese caso, el Servicio de Euskera impulsará la coordinación entre los solicitantes.

## **IV.- Disposiciones comunes**

### **19. Entidades beneficiarias**

Podrán optar a estas ayudas las entidades señaladas en el artículo 3 de las Bases Generales.

### **20. Solicitudes**

Las entidades interesadas presentarán solicitud en el formulario web regulado en el artículo

artikuluaren araututako web formularioa bete beharko dute, 5. artikuluan zehaztutako dokumentazioarekin batera.

Eskaera eta dokumentazioa oinarri orokorretako 6. artikuluan zehaztutako bide eta formatu digitalean aurkeztuko da.

## 21. Izapidetzea eta proposamena

Aurkeztutako egitasmoak izapidetzeko eta horien gaineko proposamena lantzeko, oinarri orokorretan ezarritako prozedura jarraituko da.

Eskaerak aztertzeko prozesuan, informazioa osatze aldera, entitate eskatzaileekin elkarrizketa eskatu ahal izango da.

Jardunbideak izapidetzeaz Euskara Zerbitzuko hizkuntza normalizazioa teknikaria arduratuko da.

Era berean, ondoko mahaikidez osatutako Balorazio Batzordea eratuko da:

- Euskara Zerbitzuaren burua.
- Hiriko Hizkuntza Normalkuntzarako atalaren burua.

## 22. Ebazpena

Jardunbidea erabakitzeke ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrak izango du.

## 23. Beste diru laguntzekin batera jasotzea

Oinarrien arabera emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste entitate pribatu nahiz publikoek emandako dirulaguntzekin, betiere gain-finantzaketa gertatzen ez bada. Diruz lagundutako jardueratik jasotako diru kopurua jarduera burutzeko erabili beharko da.

## 24. Dirulaguntza ordaintzea

Erabakitzeke eskumena duen entitateak

lo 4 de las Bases Generales acompañado de la documentación prevista en su artículo 5.

La solicitud y la documentación de la que se acompaña se presentará a través de los canales y en los formatos digitales establecidos en el artículo 6 de la Bases generales

## 21. Instrucción y propuesta

El procedimiento a seguir para la instrucción y la elaboración de la propuesta será el previsto en las bases generales.

En el proceso de análisis de las solicitudes, se podrá solicitar la audiencia de las entidades solicitantes al efecto de recabar toda aquella información que se considere necesaria.

La instrucción de los procedimientos corresponderá al técnico de normalización lingüística del Servicio de Euskera.

Así mismo se constituirá una Comisión de Valoración compuesta por los siguientes miembros:

- La jefa del Servicio de Euskera.
- El jefe de sección de Normalización Lingüística de la Ciudad.

## 22. Resolución

El órgano competente para resolver el procedimiento es la Junta de Gobierno local.

## 23. Concurrencia con otras subvenciones

Las ayudas concedidas son compatibles con otras subvenciones para la misma finalidad procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, siempre y cuando no supere el costo de la actividad subvencionada. Los ingresos generados por la actividad subvencionada habrá de destinarse al proyecto subvencionado.

## 24. Abono de la subvención

Aprobada la concesión de las subvenciones

dirulaguntzen emakida ontzat eman ondoren, interesatuei jakinarazi eta ordainketa era honetan egingo zaie: dirulaguntzaren %70 dirulaguntza ematea erabakitzen denean eta gainerako %30a diruz lagundutako programaren edo jardueraren derrigorrezko justifikazioa aurkeztu ondoren.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa dirulaguntzaren eskaeran azaltzen den kontu korrontean edo libretan sartuko da. Kontuaren edota titularren edozein aldaketa idatziz jakinarazi beharko Euskara Zerbitzuari; idatziak entitatearen zigilua eta diruzaintzaren arduradunaren sinadura eramango ditu.

### **25. Dirulaguntzaren xedea justifikatzea**

Dirulaguntza zurrizko, onuradunek deialdiaren oinarri orokorretako 16. artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Dokumentu hauek aurkezteko azken eguna 2024ko urtarrilaren 31 izango da.

por parte del órgano competente, se informará de la decisión a las entidades interesadas y el abono de las ayudas se realizará de la siguiente forma: el 70% de la cantidad concedida al notificar la resolución y el 30% restante una vez justificada la actividad realizada.

La cantidad concedida se abonará en la cuenta corriente o libreta señalada en la solicitud. El Servicio de Euskera tendrá que ser informado por escrito de cualquier cambio en la cuenta o titular, y el escrito llevará el sello de la organización y la firma de la persona responsable de su Tesorería.

### **25. Justificación del objeto de la subvención**

Para justificar el objeto de la subvención, las personas beneficiarias deberán presentar la documentación requerida en el artículo 16 las bases generales de la convocatoria, finalizando el plazo de presentación el 31 de enero de 2024.